



ESPEZIALITATEAK IREKI DIRA MAISU-MAISTREN KIDEGOAN

Eskabideak aurkezteko epea: apirilaren 3tik abuztuaren 12ra

96/2023 EBAZPENA, martxoaren 30ekoa, Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuko zuzendariak emana. Haren bidez, prozeduren deialdia egiten da zenbait espezialitate eta hizkuntzatan berriazko zerrendak irekitzeko eta irailaren 29ko 31/2020 Errege Lege-dekretua aplikatuz izangaien zerrendak osatzeko, Hezkuntza Departamentuaren zerbitzuko irakasle lanpostuak aldi baterako betetze aldera.

GAZTELANIAZ irakatsi beharreko espezialitateak

597 - Maisu-maistren kidegoa:

- Alemana
- Entzumena eta Hizkuntza, ingeleseko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Entzumena eta Hizkuntza, 1., 2., eta/edo 3. mailako zeinu-hizkuntza eskakizunarekin
- Entzumena eta Hizkuntza, hezkuntza berezia profilararekin
- Gorputz Hezkuntza, ingeleseko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Gorputz Hezkuntza, frantseseko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Gorputz Hezkuntza, alemaneko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Haur Hezkuntza, ingeleseko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Haur Hezkuntza, frantseseko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Haur Hezkuntza, alemaneko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Lehen Hezkuntza, ingeleseko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Lehen Hezkuntza, frantseseko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Lehen Hezkuntza, alemaneko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Atzerriko Hizkuntza: Frantsesa
- Atzerriko Hizkuntza: Ingelesa
- Musika, ingeleseko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Musika, frantseseko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Musika, alemaneko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Pedagogia Terapeutikoa, ingeleseko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Pedagogia Terapeutikoa, alemaneko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Pedagogia Terapeutikoa, 1., 2., eta/edo 3. mailako zeinu-hizkuntza eskakizunarekin
- Pedagogia Terapeutikoa, logopedia profilararekin

EUSKARAZ irakatsi beharreko espezialitateak (betekizuna: EGA edo baliokidea)

597 - Maisu-maistren kidegoa:

- Alemana
- Entzumena eta Hizkuntza
- Gorputz Hezkuntza
- Haur Hezkuntza, ingeleseko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Haur Hezkuntza, frantseseko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Lehen Hezkuntza, ingeleseko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Lehen Hezkuntza, frantseseko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Euskara (Nafarroa)
- Atzerriko Hizkuntza: Frantsesa
- Atzerriko Hizkuntza: Ingelesa
- Musika
- Pedagogia Terapeutikoa

Eskabideak eta agiriak **bakarrrik modu telematikoan** aurkeztu behar dira, honako webgune honetan, **TRAMITAZIOA** ataleko “Tramitatu” botoia sakatuta

Hor azaltzen diren urratsak bete behar dira, eta agiri hauek **SOILIK** erantsi:

- **Indarrean dagoen NAN**aren edo nortasun-agiri baliokidearen kopia eskaneatua, bi aldeetatik egina eta dokumentu bakar batean aurkeztua
- Espezialitaterako **eskatzen den** indarreko **tituluaren** kopia eskaneatua, bi aldeena, eta dokumentu bakar batean aurkeztua. Fitxategi bakarra aurkeztu beharko da titulu bakoitzeko, hala xedatzen baita Hezkuntzako kontseilariaren apirilaren 8ko 37/2020 Foru Aginduaren I. eranskineko 1. puntuan
- Zerrendan sartzeko betebeharrak modura alegatu den tituluaren indarreko **espediente akademiko** ofizial osoa, ziklo guztiei dagokiena, zeinetan agertuko baita batez besteko nota, dokumentu bakar batean aurkeztua.
- Euskaraz irakatsi beharreko espezialitateetarako: **EGA** titulu edo baliokide indardunaren kopia eskaneatua, dokumentu bakar batean aurkeztua.
- **Prestakuntza pedagogiko eta didaktikoko** masterra edo baliokidea, indarra duena, dokumentu bakar batean aurkeztua, Hezkuntzako kontseilariaren apirilaren 8ko 37/2020 Foru Aginduaren I. eranskineko 2. puntuan xedatutakoarekin bat.

Gaztelaniara edo euskarara itzuli beharko dira atzerriko hizkuntza batean idatzitako agiriak edo beste autonomia erkidego bateko hizkuntza ofizial berekian idatzitakoak. Zinpeko itzultzaileek egin beharko dituzte itzulpen horiek, eta agiriarekin batera aurkeztu beharko dira.



Prestakuntza pedagogiko eta didaktikorik izan ez, baina aipatutako gainerako baldintza guztiak betetzen dituzten izangaiak osatuko dute “masterrik gabeko zerrenda (31/2020 ELD)”. Pertsona horiei dei egingen zaie agortzen direnean prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa egiaztatzen duen titulua duten izangaien zerrendak.